

BAKOITZAK NAHI DUENA MAITATZEN DU

Orain dela urte asko Seoulen...

Baziren hiru familia, bi aberatsak eta bestea ez zen ez aberatsa ezta behartsua ere.

Familia bakoitzak ume bat zeukan eta bi familia aberatsek, euren umeak elkarren artean ezkondu nahi zituzten (Raina eta Deimon).

Rainaren gurasoak oso matxistak ziren, ez zieten uzten nahi zutena maitatzen.

Egun batean Tina eta Raina erreinuan zebiltzaten, eta ikusi egin ziren. Lehenengo momentutik besteak pentsatzen zuena jakin zuten, segituan konturatu ziren elkar maite zutela. Baina...ez ziren ausartu bata besteari zer sentitzen zuten esaten, eta hurrengo egunean berdin, eta hurrengoan ere, eta hurrengoan ere, baina... bostgarren egunean, biak, horrela ezin zutela jarraitu erabaki zuten eta esatera ausartu ziren. Batera egoteko momentuan hitzik esan gabe musukatu egin ziren, musu azkar eta zoriontsu bat .

Ondoren, Raina gurasoei esatera joan zen: Tina maite zuela, gurasoak hori entzutean oso haserre jarri ziren batez ere Klaus (Rainaren aita) eta esan zioten ezin zuela Tina maitatu, alde batetik, neska zelako, eta bestetik: ez zelako aberatsa. Orduan Raina haserre jarri zen ez zuelako ulertzen zergatik ezin zuen nahi zuena maitatu eta gainera, zer axola zen neska izatea edo aberatsa ez izatea?

Raina Tinari esatera joan zen: bere gurasoak ez ziotela uzten Tina maitatzen eta Tina lehenengo, haserretu egin zen uste zuelako Deimon maite zuela baina gero ulertu zuen eta lagundu egin zion.

- Lasai lortuko dugu!- esan zion. Bitartean Klaus palazioan zegoen pentsatzen nolatan bere umeak neska bat maite zuen. Elena eta Estefaneri (Deimonen gurasoak) ere esan zien, informatzeko,

Elenak esan zion nahi zuena maitatzen uzteko eta Estefanek berdin zuela Deimon ez maitatzea baina Klausek deia moztu egin zuen eta pentsatzen jarri zen, bera ez zegoen horrekin guztiarekin ados.

Hizan urrengo egunean Rainak Tinarekin hitz egin eta gero bere aitarekin hitz egitera joan zen.

Zera esan zion: - Aita, nik Tina maite dut! ez Deimon! mesedez eman buelta bat nik eia nahi ez dudan batekin egotea?

Klausek hori entzunda, pentsatzen jarri eta erabaki zusandakoari. Zuk zer nahiago duzu? ni pozik egotea ala zuk nahi duzunarekin ezkontzea eta bizitza guzten bere umeak arrazoia zeukala, nahi zuenakin egon zitekeela, bizitzan garrantzitsuena denan gainetik, zoriontsua izatea delako. Tinari esan zion Rainarekin hitz egiteko. Rainak hori entzutean oso pozik jarri zen eta horrela biak batera oso pozik bizi ziren.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Seouleko plazan!!!